



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak datorren ekainaren 17an irekiko ditu ateak jendearentzat, eta 19 ikuskizunez osatutako programazio berria eskainiko du uztailaren 23ra arte

- Joan den igandean Arriaga Antzokiaren 130. urteurreneko kontzertua izan behar zena eman ezin izan zuen Joaquín Achúcarro izango da ekainaren 17ko irekiera kontzertuaren protagonista.
- Arriaga Antzokiak, osasun arloko jarraibideak jarraituz, ikus-entzule, artista eta antzokiko langile guztien segurtasuna bermatzeko neurrien protokolo zorrotza prestatu du.
- Arriaga Antzokiak, Bilboko Udalak bultzatu duen estrategiarekin bat etorriz, are gehiago indartuko du bertako talentuaren aldeko apustua, Bilboko, Bizkaiko eta Euskadiko kultur sareari laguntzeko.
- Bost astez antzerkia, kontzertuak, lirika, dantza, kabareta, zartzuela, poesia eta literatura eskainiko dituen oso programa osatua prestatu da.
- Arriaga Antzokiaren ekoizpen propioak pisu garrantzia du programazioan, izan ere, 19 ikuskizunetatik sei bertan egindakoak dira, eta lau Calixto Bieitok zuzenduko ditu.
- Achúcarroz gain, beste artista handi batzuk ere igoko dira gure eszenatokira, Asier Polo, Lucía Lacarra, Ramón Barea, Bernardo Atxaga, Andeka Gorrotxategi, Gurutze Beitia, Mikeldi Atxalandabaso, Vanessa Goikoetxea, Patxo Telleria, Alicia Amo...
- Arriaga Antzokiaren eta Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) arteko lankidetzari esker, kamerako musika kontzertu bi emango dira, bat Guridiri eta bestea Beethoveni eskainitakoak.

Bilbon, 2020ko ekainaren 3an.- 2020ko ekainaren 17a oso egun garrantzitsua bilakatuko da duela denbora gutxi 130 urte bete dituen Arriaga Antzokiaren historian. Egun horretan, Arriagak berriro irekiko ditu ateak, denok ezagutzen ditugun osasun arloko arrazoiak direla eta ateak itxi behar izan zituenetik hiru hilabete eta bost egun igaro ondoren. Eta itzulera bikaina, paregabea, izango da, **Joaquín Achúcarroren**, gure garaiko piano jole garrantzitsuenetako baten, eskutik. Berea izango da Arriaga Antzokiak uztailaren 23ra arte eskainiko dituen 19 ikuskizunen artetik lehenengoa, bertako ukitu nabarmena izango duen denboraldiaren barruan, "Bilbao Aurrera" programaren barruan gauzatutako Bilboko Udalaren estrategiarekin bat etorriz. Azpimarratu behar da alderdi politiko guztiek sinatu duten programa horren helburua, COVID-19aren ondoriozko osasun krisialdiak izan dituen eraginak arintzera bideratutako neurriak bultzatzea dela, baita kulturaren alorrean ere.

Juan Mari Aburto Bilboko alkatea bera izan da gaur goizean udaleko alderdi politiko guztien ordezkariak osatzen duten Arriaga Antzokiaren Administrazio Kontseiluaren buru. Bileran, kontseilariak zehaztasunez ezagutu dute testuinguru zailari erantzuteko sortu den programazio berezia. Argi eta garbi uzten du Udalak eta Arriaga Antzokiak

berak bertako sortzaileekin eta artistekin duten konpromisoa eta gure kultura sarea bultzatzeko duten asmo sendoa.

Oihala berriro altxatzeko unea heldu da, eta Arriaga Antzokiak Bilbao Uda 2020 udal ekimenaren barruan egingo du uda honetan. Eta abaguneetara egokituz egingo du, beti egin duen bezala. Horretarako, Arriagara doazen pertsona guztien (ikus-entzuleak, artistak eta langileak) segurtasuna une oro bermatuko duten higie-neurrien protokoloa prestatu du. Edukiera murriztu egingo da, eta gehienez ere, aurretik esleituko diren eta antzokian zehar banatuko diren 246 besaulki jarriko dira salgai, une oro pertsonen arteko distantzia fisikoa gorde ahal izateko. Kopuru hori aldatu ahal izango da aurrerago, gertakarien eta osasun arloko agintarien aholkuen arabera. Hartutako beste neurri batzuk garbiketarekin, sarbideen antolakuntzarekin, Antzokiko seinaleekin, gune komunitatibekin... daude erlazionatuta ([eranskina ikusi](#))

Achúcarro, sinboloa

Arriaga Antzokiaren berrikeraren protagonista Joaquín Achúcarro maisu handia izango da. Bera zen, hain zuzen ere, duela egun gutxi, maiatzaren 31n, igandean, Arriaga Antzokiaren 130. urteurrena ospatzeko kontzertua eman behar zuena. Zoritxarrez, hori ezinezkoa izan da, baina, orain, Arriagan, maisuarekin elkartzeko eta urteurrena baino garrantzitsuagoa den zerbait, bizitza eta kultura, ospatzeko eta gaur egunera eta etorkizunera begiratzeko, aukera dugu. Ez da kasualitatea bere belaunaldiko norbait izatea Arriagako ikuskizunei berriro ekiteko aukeratu dena, pandemiaren ondorioak gehien jasan dituen belaunaldiaren sinbolo moduan. Hori dela eta, Arriaga Antzokiak Achúcarro maisuaren alde egin duen apustua sinboloa ere bada, arteak eta edertasunak abagune zailenak gainditzen dituela erakusten duen sinboloa, hain zuzen ere. Bere sentsibiltatea, indarra eta gozotasuna ekainaren 17an, asteazkenean, elkartuko dira, Bachen, Beethovenen, Brahmsen eta Liszten lanetatik zehar egingo dugun bidaian hunkitzeko.

Eta, egun horretatik aurrera, beste 18 ikuskizun, guztiak ere egun bakarrean eta 19:30ean hasita, bost asteko epean, uztailearen 23ra arte. Arriaga Antzokiak zuhurtziaz eta sormenez erantzun gura izan dio proposamen eszenikoen kalitatea eta eszenatokiaren beraren barruan osasun arloko neurriak betetzea uztartzen dituen erronkari. Irizpide horretan oinarrituta ari gara ekoizpen propioko ikuskizunak, eszenografiak, antzezleen posizioak... diseinatzen, gauza modu egokian egiteko. Irizpide hori bera beteko dute 2020ko ekainean eta uztailean ikus-entzuleek gozatu ahal izango dituzten gainerako ikuskizunek ere.

Bertako talentua eta ekoizpen propioa

Arriaga Antzokiaren programazio berria definitzen duen zerbait baldin badago, bertako talentuaren aldeko apustua da, zalantza barik. Ezaugarri hori berezkoa du Arriaga Antzokiak, baina une honetan are gehiago indartzen da gure kultur ingurunearekin dugun konpromisoa.

Adibide garbiena, bertako ekoizpenetan egin den lanean erakusten da. Oraingo honetan sei ikuskizun izango dira, horietako lau **Calixto Bieitok**, Arriaga Antzokiko zuzendari artistikoak zuzenduta. Ikuskizunen artean, **Asier Polo** biolontxelo jole bikainak Bach interpretatuz emango duen kontzertua (uztailearen 2an) eta **Jone Martínez** sopranoak eta **Maite Maruri** mezzoak, **Passamezzo Antico** ensemble barrokoarekin batera Vivaldi interpretatuz eskainiko dutena (uztailearen 8an) egongo dira. **Gabriel Arestiren etxea defendituko dut** (uztailak 9) poesia ikuskizuna ere Bieitok zuzenduko du. Gabriel Arestiren poemei egingo zaien omenaldia da, euskaraz eta gaztelaniaz, **Miren Gaztañagaren**, **Itxaso Quintanaren**, **Mikel Losadaren** eta **Gabriel Ocínaren** ahotsekin. Amaitzeko, uztailearen 14an, Bieitok berak **Tiempos de Cabaret y Cambalache** zuzenduko du, **Gurutze Beitiarekin**, **Iñaki Maruri** pianoan eta

Jon Fresko perkusioan arituko diren antzerki-kabaret ikuskizuna, keinuan, imintzioan, oihuan eta zoramenean oinarritutako antzezlan, oso antidoto ahaltzuak baitira krisi garaietarako. Eta are gehiago musikaz janzten direnean.

Arriaga Antzokiko beste ekoizpen lan biek figura handiak ekarriko dizkigute. Alde batetik **Lucía Lacarra** izango dugu. **Matthew Goldingekin** batera, *Reencuentro en danza* izeneko oroimeneko ikuskizuna interpretatuko du, Tchaikovski edo Vivaldiren musikak Petipa edo Edwaard Liangren koreografiekin uztartuko dituen programan hainbat pieza integratuz. Ikuskizunak **Bilbao Sinfoniettaren** zuzeneko musika interpretazioa ere izango du. Uztailaren 7an izango da hori. Beste alde batetik, **Bernardo Atxagak** bere azkenengo sorkuntza lana estreinatuko du uztailaren 21ean: *Pange lingua, voglio una pizza*. *Pange lingua*, Atxagak ume zenean bere jaioterrian entzuten zuen otoitza zen, elizan oraindik latina erabiltzen zen garaietan; *Voglio una pizza*, erlijiozko esperientziatik berrogeita hamar urtera idatzi zuen poema bufoaren izenburua da. Bi une horien artean, hirurogeita hamarreko hamarkadan *Etiopia*, euskal literatura modernoaren historian jauzia eragin zuen liburua, idaztera eraman zuen poesia jarduna dago. Irakurketa elebiduna izango da parte batean, eta **Joseba Apaolazak** helaraziko dizkie itzulpenak eta oharrak ikus-entzuleei.

Antzerkia eta musika

Antzerkiari dagokionez, euskaraz *Ez dok hiruren* bertsio akustikoa jarraitu ahal izango dugu **Patxo Telleriarekin** eta **Mikel Martínezekin**, ekainaren 18an; eta **Aitziber Garmendiak** interpretatuko duen Marta González de Vegaren *Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)*, dibertigarria (ekainaren 25ean).

Gaztelaniako lanei dagokienez, hor dira **Itziar Lazkanok** eta **Ramón Bareak** interpretatuko duten eta antzerkiaren aurreko maitasun kantua den *Hoy, última función* (ekainak 24); edo *Desfasando que es gerundio* lanaren estreinaldia (ekainaren 30ean), eguneroko egoeretatik umorez betetako ibilbidea proposatzen duen Lalúlú Teatroyen (**Sol Maguna**, **Maribel Salas** eta **Gemma Martínez**) ikuskizun berria. Ramon Bareak errepikatuko du, baina oraingo honetan ahanzturaren kontrako eta herrien oroimena errebindikatzearen aldeko *¡Ay, Carmela!* oihuaren zuzendari gisa. Protagonistak **Olatz Ganboa** eta **Diego Pérez** izango dira. P6ren ekoizpen lana uztailaren 16an ikusi ahal izango da. Eta egun batzuk geroago, uztailaren 22an, **Juan Pañosek** *Ramper, vida y muerte de un payaso* interpretatuko du, **Imanol Ituiñok** idatzi eta zuzentzen duen eta ahaztutako jenio baten historia hurbiltzen digun bakarrizketa.

Musika izango da programazioaren beste zutabe garrantzitsu bat. **Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (BOS)** lankidetzan, kamerako musikako bi kontzertu emango dira, bat **Guridiren** musikarekin, ekainaren 19an, BOSeko harizko bi laukotek interpretatutako zenbait piezarekin; eta bestea **Beethoveni** eskainitakoa, ekainaren 26an, BOSeko harizko beste laukote batek eta haizezko eta harizko zazpikote batek interpretatuta.

Gainera, ekainaren 23an, **Vanessa Goikoetxea** eta **Mikeldi Atxalandabaso**, lehen aldiz elkartuko dira eszenatoki berean, zartzueta programa eskaintzeko, Usandizagaren, Guridiren, Sorozabalen eta Arrietaren Romantzen eta Duoen interpretazioekin. Uztailaren 1ean, **Alicia Amo** sopranoak, Beethoveni, Schuberti eta Mendelssohni eskainitako bloke bat izango duen errezitaldia emango du; bigarren partean, oso melodia sefardi ederrak interpretatuko ditu. Eta uztailaren 15ean, **Andeka Gorrotxategi** euskal tenore handiak, bere ahotsa eta presentzia jarriko ditu Euskal Herriko eta Italiako abestien aukeraketan, zartzueta erro-mantzak eta operako ariak ere interpretatuko dituen kontzertuan. Hiru musika hitzordu horiek **Rubén Fdez. Aguirre** maisuaren lankidetzan izango dute, piano jotzailearen paperean, noski.

Hain programazio bereziari amaiera emateko, ikus-entzuleek **Eñaut Elorrietaren** heldutasun artistikoaz gozatzeko aukera izango dute. Arriagara, iazko abenduan *Irteera argiak* diskoa aurkeztu zuen lekura, itzuliko da, lan horren beste musika ikuspegi bat oparitzeko, uztailaren 23an gertatuko den oso emanaldi berezian.

Sarrerren salmenta

Programatutako ikuskizun guztietarako sarrerak bihartik, ostegunetik, ekainaren 4tik, aurrera egongo dira salgai www.teatroarriaga.eus webgunean edo Arriaga Antzokiaren txarteldegietan. Txarteldegien kokalekua, indarrean dauden osasun arloko arauak betetzen direla bermatzeko egokitu eta seinaleztatu da. Sarrerek 15 euroko kostu bakarra izango dute (12 euro Arriagaren Adiskideentzat) eta 30 eurorengatik hiru ikuskizunerako bonua eskuratzeko aukera ematen da.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus